

## Euskarazko hedabideak eta hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian

### 1. Elkarteen lana hedabideetan

Iparaldean euskarazko prentsa, irratigintza eta telebista neurri handian elkarrekin segurtatzen dute. Zerbitzu publiko frantsesa, batzaz beste, irratan oren bat eta telebistan minutu bat eskaitzen ditu egunero. Bestalde EITB Iparaldean hedatua da.

*Herria* paperezko astekaria 1944an sortu zenetik, euskarazko hedabideen paisaia emeki osatuz joan da, elkartegintzari esker nagusiki.

Irratigintza askatu zen unetik (Frantzia, 1981 arte, irratigintza eta telebista Estatuaren monopolioak ziren) hiru irratia libre sortu dira 1981 eta 1982 urteetan : *Gure Irratia* Lapurdira, *Irulegiko Irratia* Baxenabarren eta *Xiberoko Botza* Maulen. 1997an *Euskal Irratiak* federazioa muntatu zuten elkar laguntzeko. 2002an, Gure Irratiaren hedapen eremua Hego Lapurdirat zabaltzeko helburuarekin sortu zen Antxeta Irratia. Geroztik, lau irratiek funtsezko papera betetzen dute Iparaldean euskara etxeetan hedatzeko.

Telebistari doakionez, *Aldudarrak Bideo* web telebista 1997 urtean sortu da eta geroztik tokiko telebista parte hartzailearen esperientziak jarraitzen du. Interneten bidez hedatua da. Gisa horretan telebista eduki jarraikia eskainiz interneten bidez bakoitzaren gustura, dinamika partehartzailea sustatuz euskarazko telebistaren inguruan eta profesionaltasunez jokatuz. Bestalde ekoizten duen produkzioaren parte bat hertz uhinetan hedatua da, TVPi TDT telebistan.

2005 urtean, *Radio Kultura* web irratia elebiduna sortu da, eta 2008an Kazeta.info web egunkaria (dena euskaraz).

2010ean, *Berrria* egunkariak *Iparaldeko Hitza* paperezko astekaria sortu du, euskarazko prentsa idatziaren eskaintza osatzen duena.

### 2. Botere publikoaren parte hartzea

1990ean Euskal Kultur Erakundea antolatu zen Estatuak, Akitania, Departamendua, Udalerriak eta kultur elkarten artean, bai eta denbora berean Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko Sindikatua (EKAHS).

1990 urteetan, udalerriek eta ETBk igorgailu sare bat muntatu zuten ETBren hedatzeko Iparalde osoan.

Euskal Kultur Erakundea hasi zen euskal irratia federazioaren laguntzen emankizun kultural batzuetan ordainduta. Bestalde, Sindikatuak errepikagailuen kudeaketa bere gain hartu zuen ETBren lankidetzarekin.

1995az geroztik Lurralde antolaketa eta garapen eskemak hasi ziren toki berezia baten ematen euskarazko hedabideei. 2001-2006 Hitzarmen Berezian, "Hizkuntza politika" kapituluak hiru ekintza programatu ziren :

- « Euskarazko 3 irratia helaraztea egitasmo amankomun batera, emankizunak eta baliabideak elkarrekin baina hurbiltasuna zainduta » : horretarako Obragintza Publikoak urtero 110.000 euro eskainiko dizkio Euskal Irratiak federaziori.
- « Euskararen tokia zabaltzea irratia eta telebista publikoetan ». Irrati publikoak egunero oren bat eskaitzen zizkion euskarari. Telebista publikoan egunero 7 minutu tokiko berrientzat eta batzaz beste minutu bat euskaraz. Radio France erakundearen gain eman zen euskarazko irratia publiko baten sortzeko azterketa lana. Bigarren xedea zen telebista publikoan euskararen presentzia garatzea. Bi xede horiek ez dira gauzatu.

- « ETBren hedapen egokia segurtatzea lurralde osoan ». ETBk 26 errepikagailu mantentzen ditu (120.000 □ urtero) eta Herrien arteko Sindikatuak 14 (50.000□ urtero).

### **3. Euskararen Erakunde Publikoaren Hizkuntza politika proiektua**

2005ean, Obragintza Publikoaren jarraian, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortu zuten botere publikoaren 4 mailetakako ordezkariak (Estatua, Akitania Eskualdea, Pirineo Atlantikoetako Departamendua, Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko Sindikatuak, Hautetsien kontseilua) eta ondoko urtean Hizkuntza politika proiektua finkatu eta aho batez adostu « hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun ». 12 erronka nagusi hiru zatitan banatuak dira : euskara transmititzea (*familia, haurtzaintza, irakaskuntza*), euskaraz bizitzea (*hedabideak, aisialdia, argitalpena, toponimia, gizarte bizitza*), euskara bizkortzea (*helduen euskalduntzea, hizkuntzaren kalitatea, ikerkuntza, motibazioa*).

Hizkuntza politika proiektuak hedabideak laugarren erronka gisa jartzen ditu. Alabaina irratiak, telebista, aldizkariak, eta web hedabideak tresna eraginkorrak dira hizkuntza hedatzeko etxeetan, jendarrean eta bereziki gazteengan. Oro har hizkuntza paisaiari euskal itxura ematen dio, euskaraz hitz egiteko motibazioa indartuz. Gainera komunikabideek badute eragin pedagogikoa, irakurleak, ikusleak eta entzuleak trebatzen dira euskara hobeki mintzatzen. Ondorioz Hizkuntza politika proiektuak helburu gisa finkatzen du euskarazko komunikabideak (edo komunikabideen) azkartzea, gizarte euskara biziartzeko eta mintza moldearen kalitatea goratzeko. Bi helburu eta sei norabide estrategiko finkatuak dira :

1. Euskarazko hedabideen eskaintza osatu :
  - a) euskarazko hedabideak indartzuz,
  - b) euskararen lekua zabalduz oraingo hedabideetan,
  - c) eskaintza berri bat asmatuz.
2. Hedabideak erabili euskara ikasteko eta hobetzeko :
  - a) euskararen kalitate maila goratuz,
  - b) irakaskuntza lagunduz,
  - c) gazteak parte hartzera gomitatuz.

Hona beraz zein jokabide esparrutan sartzen diren hedabidei buruzko lan ardatzak.

### **4. Hizkuntza politika proiektua adostu ondotik egin urratsak**

#### **4.1 Euskarazko hedabideak indartzea**

- ✓ Hedabideen funtzionamendua diruz laguntzea :

EEPk eta Eusko Jaurlaritzak urte guzietan osatzen duten fondo amankomunaren bitartez, lurraldeko euskal hedabideen eragile guzietan laguntzen dira, hitzarmenez (Euskal Irratiak) edo urte guzietan antolatzen den Hizkuntza jardueraren proiektu deialdiaren bidez (beste hedabideak). Azken urte hauetan, hedabideen alde erabili diren baliabideak 515.000 eurokoak izan dira batz besterik.

Eragile nagusi gisa, Euskal Irratiak federazioari 285.000 euroko diru laguntza ematen zaio, hitzarmenez (2009an, Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak erabaki dute hitzarmen andana baten muntatzea Euskal Irratien Federazioarekin eta lurraldeko beste 7 eragile nagusirekin, euskalgintzan beharrezko arduradunak diren neurrian eta ekintza linguistiko osoan sartzen baita).

Beste euskarazko hedabideak lagunduak dira Proiektu Deialdiaren bidez :

- Aldudarrak Bideo web telebista : 67.200 euro

- Herria astekari idatzia : 40.800 euro
- Errobi Promotions (web irratia) : 28.800 euro
- Ipar euskal herriko hitza (Berriaren gehigarria) : 24.000 euro
- Kazeta.info (web egunkaria) : 24.000 euro

✓ Hedabideak profesionalizatzen laguntzea :

Bestalde, azken urteetan, profesionaltasunari buruzko laguntza hitzarmenak egin ditu EEPk euskarazko hedabide kasik guzietan, hedabideak profesionalizatzen, azkartzen eta egonkortzen laguntzeko :

- **Euskal Irratiak federazioa** : EEPk partaidetza berezi bat egin du 2006an Euskal Irratiekin, euskarazko irrati sare osoaren jardura zehazki aztertzeko helburuarekin. Partaidetza hau profesionaltasunari buruzko laguntza hitzarmen baten gaia izan da. Ondotik 2009an bigarren hitzarmen bat egin da, lan tresna batzuen sortzeko (jardura eta kontu bilanak bereziki).
- **Errobi Promotions** (Radiokultura.com) : 2008an, kontuen egituratzeko, profesionalizatzeko hitzarmen bat egin da, eta 2010ean, bigarren bat komunikazio plan baten egituratzeko, Radiokultura.com internet bidezko irratia azkartzeko eta garatzeko xedearekin.
- **Herria** : 2008an, aldizkaria egonkortzeko eta garatzeko bidei buruzko gogoeta partekatu baten egiteko hitzarmen bat egin da (astekariaren diagnostikoa eta egoera ; egonkortze eta garapenerako ildoak).
- **Aldudarrak Bideo** : 2010eko hitzarmenean, fluxuen antolaketa eta indarrean eman baliabideak aztertzerat eman dira (ekoizpen fluxuak, sarearen azpiegitura, bideoen aurkibidea, internet gunea...), ondotik aterabide berrien eta optimizatuaren definitzeko xedearekin.
- **Euskal Komunikabideak** : 2010ean hitzarmen bat egin da, Berria egunkariaren hedapen egoera aztertzeko eta hedapenaren hobetzeko proposamen batzuen egiteko.

✓ Hedabideen entzulegoaren azterketa eta promozio ekintza baten antolatzea :

- 2006an EEPk inkesta bat eginarazi du, Iparraldeko biztanleek telebista eta irratiarekin dituzten erabiltze ohituren ezagutzeko, eta bereziki euskarazko hedabideen entzute heinaren neurtzeko,
- Ondotik euskarazko hedabideen promozio lan bat antolatu da, Iparraldeko publiko zabalari euskarazko hedabideak hobeki ezagutarazteko, eta enpresei baita ere, gisa horretan euskarazko hedabideen zerbitzua hobeki merkaturatzeko.

#### **4.2 Frantsesez nagusiki ari diren hedabideetan euskararen presentzia garatzea**

Frantzia mailako irrati eta telebista publikoetako arduradunekin bilkura politikoak antolatu dira (France 3 telebista publikoarekin eta France Bleu irrati publikoarekin) euskararen presentzia azkartzeko helburuarekin. Aitzinamendu guti baizik ez da izan.

Bestalde, nagusiki frantsesez ari diren tokiko hedabideen kasuan, gehienak EEP/EJ Proiektu deialdiaren bidez lagunduak dira euskarazko presentzia garatzeko helburuarekin : TVPi TDT telebista pribatua lagundua da alde batetik euskarazko programak ekoizteko, eta beste aldetik Aldudarrak Bideo web telebistaren programa batzuk hedatzeko TVPin (32.000 euro orotara). Gisa berean, beste hedabideak lagunduak dira euskarazko presentziaren segurtatzeko : Media Bask web egunkaria eta paperezko astekaria (5.000 euro), Radio mendililia Xiberoko irratia (6.000 euro), Xibero telebista web telebista (2.000 euro).

#### **4.3 EITB irrati telebista iparraldean hedatzea**

1990 urteetan ETB telebistaren hedapena antolatu zen iparraldean, molde analogikoan, 40 errepikagailuren bidez. Jakinez 2011an hedapen numerikoak analogikoa ordezkatuko zuela, EEPk bere gain hartu du ETBren hedapena analogikotik numerikora aldatzeko ardura, EITBekin elkarlanean. Ondorioz, hedapen numeriko eskema bat adostu da eta gauzatu 2011ko apirilaren 1tik goiti : EITBren kate guzietan (horien artean ETB1 eta ETB3 euskal telebistak) hertziar hedapen numerikoa antolatu da

iparraldeko 9 hedagailu numerikoen bidez, eta ETB1 telebista katearen satellite bidezko hedapena antolatu da, TDT guneetaz kanpo gelditzen ziren tokientzat.

Ondotik, Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko Sindikatuak EEPren segida hartu du, hedapen sistema horren kudeaketa bere gain hartuz. Hedapen hori diruztatzen dute EITBk, Departamenduak eta Iparraldeko herri eta hiri elkargoek.

## **5. Ondorioa**

Iparraldean euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa berria da : hamar urte EEP sortua dela, ordu arte ekintza publiko bakar batzuk baizik ez ziren. Hedabideen eremuan, elkartegintzak du euskarazko eskaintza egituratu, izan prentsa idatzian, irratigintzan, edo telebistan. Hizkuntza politika proiektua finkatu duenetik 2006an, EEPk egituratu duen politikak transmisio sailak ditu lehentasunez landu, bereziki irakaskuntza eta haur ttipien harrera. Berrikiago, erabilpen eremuak hasi ditu lantzen, bereziki herriko etxeekin, herri elkargoekin eta eragile nagusiekin lan eginez. Hedabideen eremuan, EEPk orain arte ukan duen politika partziala izan da :

- Iparraldeko euskal hedabideen funtzionamendua diruz laguntzen du, Eusko Jaurlaritzarekin batean ;
- Iparraldeko euskal hedabideak laguntzen ditu profesionalizatzen, egonkortzen eta azkartzen, hitzarmen berezi batzuen bidez, edo promozio lan batzu antolatuz ;
- Iparraldeko frantsesezko hedabideak laguntzen ditu euskararen presentzia garatzen ;
- EITBren hedapen numerikoa antolatu du, EITBekin elkarlanean.

Hedabideen alorrean eramaten den ekintza publikoak, egituratze hobia eskatzen du, parte hartze handia, jakitate berezi batez jabetzea eta erronkaren heineko giza baliabideak ukaitea :

- alde batetik, hizkuntza politikaren ikuspuntutik erronka nagusi bat da (hedabideek forma ezberdinetan gizarte osoa estaltzen dute),
- eta bestalde alor honetan dauden teknika bereziengatik (informazio teknologikoek hartzen duten tokia gero eta handiagoa, hedapenaren aldaketa molde analogikotik molde numerikora, teknikaren etengabeko aitzinamendu eta aldaketak, hedabide mota ezberdinen arteko mugen inarrotea...)

Bernadette Soulé, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendaria